# ZERGA ORDENANTZEN ALDAKETA

## MODIFICACIÓN DE LAS ORDENANZAS FISCALES

**IFK/CIF** P2006900A
**Tel.** 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

**ARLO EKONOMIKOA**
**Tel.** 943 344147 - 943 344157
ekonomia@pasaia.net

Udalbatzak, 2020ko otsailaren 25ean eginiko bilkuran, hasierako onespena eman zion jarraian aipatutako tasak eta zergak arautzen dituen ordenantzaren aldaketari.

El Ayuntamiento-Pleno, en sesión celebrada el día 25 de febrero de 2020 acordó aprobar inicialmente la modificación de las siguientes ordenanzas reguladoras de las tasas e impuestos.

Hartutako erabakia eta horretarako abiarazitako espedientea jendaurrean jartzen dira, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 16.1 artikuluan xedatutakoarekin bat. Horretarako, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan iragarkiak jarriko dira eta, era berean, Gipuzkoan gehien irakurtzen diren egunkarietako batean ere argitara emango da, artikulu horren 2. puntuan ezartzen dena betez. Hori guztia, honako arau hauei jarraituz:

El acuerdo adoptado, y el expediente al efecto instruido se someten a información pública en cumplimiento de lo dispuesto en el art. 16.1 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, mediante publicación de anuncios en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de edictos de la casa consistorial y también en un periódico de los de mayor difusión de Gipuzkoa según exige el número 2 del citado artículo, todo ello conforme a las siguientes reglas:

- Non dagoen ikusgai: udal honetako Kontu-hartzailetzan.
- Aztertu eta, hala badagokio, erreklamazioak egiteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, bulego orduetan.
- Erreklama dezaketenak: uztailaren 5eko 11/19895 Foru Arauaren 17. artikuluan adierazten direnak.
- Erreklamazioak aurkezteko bulegoa: Udaleko Sarrera Erregistro Nagusia. Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.artikuluan adierazten den lekuetan aurkez daitezke.
- Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatza.

- Lugar donde se encuentra: En la Intervención de este Ayuntamiento.
- Plazo para examinarlo y, en su caso, para presentar reclamaciones: treinta días hábiles contados a partir del siguiente también hábil al de la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, en horario de oficina.
- Quiénes pueden interponer reclamaciones: los que relaciona el artículo 17 de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio.
- Oficina de presentación: Registro General de Entrada del Ayuntamiento. También podrán presentarse en los lugares que señala el artículo 16 de la ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
- Órgano ante el que se reclama: Ayuntamiento Pleno.

Erreklamazioak edo iradokizunak egiteko arauzko epea igarota erreklamazio edo iradokizunik jasotzen ez bada, hartutako erabakiak behin betikotzat joko dira, akordio

Una vez transcurrido el plazo reglamentario de esta información sin que se haya producido reclamación u observación alguna, se tendrán por definitivos los acuerdos

berririk hartzen ibili gabe.

adoptados sin necesidad de nuevos acuerdos.

## 03.-TRAKZIO MEKANIKOZKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

Zerga-kuotaren %50eko hobaria izateko ibilgailuen gutxieneko antzinatasuna aldatzen da.

*9. artikulua*

*Ibilgailu historikoek zerga-kuotaren %50eko hobaria izango dute, eta gutxienez hogeita hamar urteko antzinatasuna duten ibilgailuek ere bai, fabrikazio-datatik kontatzen hasita. Fabrikazio eguna ezezaguna bada, lehen aldiz matrikulatu zireneko eguna hartuko da halakotzat edo, bestela, ibilgailu mota edo aldaera hori fabrikatzeari utzi zitzaion eguna.*

*Motorraren ezaugarrien arabera eta karbono-dioxido igorpenen arabera ordenantza honetako eranskinean azaltzen den hobaria aplikatuko zaio.*

## 03.-ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE VEHICULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA

Se modifica la antigüedad mímina de los vehículos para la bonificación del 50% de la cuota del impuesto.

*Artículo 9*

*Gozarán de una bonificación del 50% de la cuota del impuesto los vehículos históricos, o aquellos que tengan una antigüedad mínima de treinta años contados a partir de la fecha de su fabricación. Si ésta no se conociera, se tomará como tal la de su primera matriculación o, en su defecto, la fecha en que el correspondiente tipo o variante se dejó de fabricar.*
*Dependiendo de las características del motor o de las emisiones de dióxido de carbono se le aplicará la bonificación que figuran en el ANEXO de esta ordenanza.*

| | |
|---|---|
| 008 -Trakzio mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga. Hobariak | 008 - Impuesto sobre vehículos de tracción mecánica. Bonificaciones |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ibilgailu historikoak eta gutxienez hogeita hamar urteko antzinatasuna duten ibilgailuak, fabrikazio-datatik kontatzen hasita | 50 | % | Los vehículos históricos, o aquellos que tengan una antigüedad mínima de treinta años contados a partir de la fecha de su fabricación |

## 07.-ORDENANTZA,ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BIDERATZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK

### 07.01.- DOKUMENTUAK EGITEA

6,00 euroko tasa berria sortzen da txartel hauen kopia egiteagatik

## 07.-ORDENANZA REGULADORA DE TASAS POR PRESTACIÓN DE SERVICIOS PÚBLICOS Y REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS

### 07.01.- EXPEDICIÓN DOCUMENTOS

Se añade una nueva tasa de 6,00 euros por expedición de duplicado de las siguientes

**IFK/CIF** P2006900A
**Tel.** 943 344034
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

**ARLO EKONOMIKOA**
**Tel.** 943 344147 - 943 344157
ekonomia@pasaia.net

tarjetas:

-4.kategoriako arma txartelak egitea

-tarjeta de armas de 4ª categoría.

-Arriskutsuak izan daitezkeen txakurren edukitzeko lizentzia

-licencia de tenencia de perros potencialmente peligrosos

-Arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregistroan inskribatzea

-Inscripción en el registro de animales potencialmente peligrosos

## 07.05.- KULTURA ETA HEZKUNTZA ARLOKO PROGRAMAK

## 07.05.- PROGRAMAS ÁREA CULTURA Y EDUCACIÓN

**003 - Itsas Festibaleko ikuskizunetako sarrerak eta zerbitzuak**

**003 - Entradas a espectáculos y servicios del Festival Marítimo**

Paragrafo hau gehitzea:

Incluir el siguiente párrafo.

“Aurrekoen artean sarreraren prezioa ezarriko du emanaldiak eragiten duen gastua onartzen duen organoak, kostuen arabera; eta sarrera librea ezar liteke, emanaldiaren gizarte- eta kultura-interesaren baitan. Gerta liteke ezaugarri bereziak dituzten ikuskizunak eta jarduerak antolatzea eta/edo produktuak eta zerbitzuak diseinatzea, eta horietan aurreko ataletan ezarritakoez bestelako kopuruak jaso behar direla iriztea”

“La determinación del precio de la entrada dentro de los anteriores, se hará por el órgano que apruebe el gasto que origine la actuación, en concordancia con los costes, pudiéndose determinar el precio de entrada libre en función del interés social y cultural de la misma. Podrán realizarse espectáculos, actividades y/o diseñar productos y servicios en los que por sus especiales características se considere que deban percibirse cantidades distintas a las señaladas en los apartados anteriores.”

Tasa berri bat sortzea Itsas Festibaleko postuetan izen-emategatik.

Crear nueva tasa por inscripción de puestos de Festival Marítimo.

**004- Itsas Festibaleko postuetarako izen-emateak**

**004- Inscripciones puestos Festival Marítimo**

| **Artisautza eta itsas ondareko erakusketa postuen izen-ematea Festibalak jarritako ZUREZKO ETXOLA EDO KARPETAN:** | **Inscripción para puestos de Artesanía y exposiciones de Patrimonio Marítimo Vasco en CASETAS DE MADERA o CARPAS aportadas por el Festival.** | **EGUNEKO**<br><br>**POR DÍA** |
|---|---|---|
| ITSAS ONDAREKO ELKARTE EDO ENTITATEEN ERAKUSKETA POSTUA edo ELKARTASUNEKOAK | PUESTO DE EXPOSICIÓN DE ASOCIACIONES Y ENTIDADES DE PATRIMONIO MARÍTIMO o SOLIDARIAS | 0 |
| ARTISAU POSTUA SALMENTA ETA TAILERRAREKIN (EDUKIA: FESTIBALA EDO ITSAS ONDAREA) | PUESTO ARTESANÍA CON VENTA Y TALLER (CONTENIDO FESTIVAL O PATRIMONIO MARÍTIMO). | 50 |

| | | |
|---|---|---|
| ARTISAU POSTUA SALMENTAREKIN TAILER GABE (EDUKIA: FESTIBALA EDO ITSAS ONDAREA) | PUESTO ARTESANÍA CON VENTA SIN TALLER (CONTENIDO FESTIVAL O PATRIMONIO MARÍTIMO). | 75 |
| ARTISAU POSTUA SALMENTA ETA TAILERRAREKIN (FESTIBALAREKIN ZERIKUSIRIK EZ DUENA) | PUESTO DE ARTESANÍA CON VENTA Y TALLER CONTENIDO AJENO FESTIVAL | 100 |
| ARTISAU POSTUA SALMENTAREKIN TAILERRA GABE (FESTIBALAREKIN ZERIKUSIRIK EZ DUENA) | PUESTO DE ARTESANÍA CON VENTA SIN TALLER CONTENIDO AJENO FESTIVAL. | 150 |
| **Itsas Festibalean postua jartzeko izen-ematea, parte-hartzaileek ekarritako KARPETAN edo *FOODTRUCK*ETAN:** | **Inscripción para puesto del Festival Marítimo en CARPAS o *FOODTRUCK*S, aportadas por el participante.** | **EGUNEKO**<br>**POR DÍA** |
| ITSAS ONDAREKO ELKARTE EDO ENTITATEEN ERAKUSKETA POSTUA EDO ELKARTASUN ELKARTEAK | PUESTO DE EXPOSICIÓN ASOCIACIONES Y ENTIDADES PATRIMONIO MARÍTIMO o ASOCIACIONES SOLIDARIAS | 0 |
| *FOODTRUCK* SALMENTA POSTUAK | PUESTO VENTA *FOODTRUCKS* | 150,00 € |
| SALMENTA POSTUA DINAMIZAZIO JARDUEREKIN. FESTIBALAREKIN ZERIKUSIRIK EZ DUEN EDUKIA. | PUESTO DE VENTA **CON DINAMIZACIÓN** CONTENIDO AJENO FESTIVAL | 5€/ m2 |
| SALMENTA POSTUA **DINAMIZAZIORIK GABE.** FESTIBALAREKIN ZERIKUSIRIK EZ DUEN EDUKIA | PUESTO DE VENTA **SIN DINAMIZACIÓN** CONTENIDO AJENO FESTIVAL | 10€/ m2 |

Izen-emateen onarpena eta horiei zen atal aplikatuko zaien erabakitzeko, horretarako egindako deialdian ezarritako irizpideak hartuko dira kontuan.

La aceptación de las inscripciones y la determinación del apartado aplicable a las mismas se fijará en base a los criterios establecidos en la convocatoria realizada al efecto.

Pasaia, 2020-02-25

ALKATEA / LA ALCALDESA

Izaskun Gómez Cermeño